

## Konfiantzaren, eskaeren eta enpleguaren hondatzea Gipuzkoako enpresetan

**Lehengaien eta energiaren hornidura eta kostua, lan-kostu handiak, soldata-igoerak, eta salmenten errentagarritasunaren jaitsiera enpresen kezka nagusienak.**

**Datozen hilabeteetarako merkatuaren egoerak okerrera egingo duela aurreikusi dute enpresek. Gaur egungo egoera ez da apirilean aurreikusitakoa bezain ona.**

**Enpresen fakturazioaren igoerak indarra galdu du eta eskaeren mailak % -4 egin du behera.**

**Enpresen % 15ek plantillak handitzea aurreikusten dute, % 17,5ek murriztea eta % 67,5ek mantentzea.**

**Salmenten errentagarritasuna enpresen % 52tan jaitsi da eta % 3tan handitu da. % 44k mantentzen du.**

**Hornikuntzen kostua gorantz mantendu da enpresen % 71,5rentzat.**

**Gipuzkoako BPG % 4 haziko da aurten, urte hasierako gure aurreikuspenen maila baxuan.**

**Badirudi enpleguaren sorrera moteldu egin daitekeela, baita murriztu ere, batez ere industrian eta merkataritza- eta ostalaritza-zerbitzuetan. Hala eta guztiz ere, batez beste, 2022an 5.000 bat soldatapeko enplegu garbi sor litezke, iazko datuekin alderatuta.**

### Merkatuaren egoera

Enpresen konfiantzaren galera azkartu egin da, baina merkatuaren egoera normaltasunekoa edo berraktibaziokoa dela uste dute oraindik ere enpresen % 80k.

Enpresen % 30ek uste dute merkatuaren egoera berraktibaziokoa dela; 2021eko urtarrilaz geroztiko mailarik baxuena da (orduan % 26). Aurreko urtearekin alderatuta, -25 puntu gutxiago dira.

Enpresen % 50ek adierazi dute merkatuaren egoera normaltasunekoa dela; apirilean baino +% 6,5 puntu gehiago eta iaz baino +21% puntu gehiago.

% 20ra igo da merkatua atzeraldian dagoela uste duten enpresen kopurua; berraktibazioaren aukerak galdu dituen +7 puntu jaso ditu aukera honek, eta 2021eko apirilaz geroztiko mailarik altuena eskuratu du (orduan % 23,5). Aurreko urtearekin alderatzen baldin badugu, +4 puntu gehiago dira.

Batuketa eginda, enpresen % 80k uste dute merkatuaren egoera normaltasunekoak edo berraktibaziokoa dela. Apirilean baino -7 puntu gutxiago dira, eta iaz baino -4 puntu gutxiago. Hau ere 2021az geroztiko mailarik baxuena da (orduan % 76,5).

Industriako enpresen artean, % 79k uste dute haien merkatuen egoera berraktibaziokoa edo normaltasunekoak dela (% 78,5 metalikoak, % 80 ez-metalikoak). Eraikuntza-sektoreko enpresa guztiek adierazi dute egoera normaltasunekoak edo berraktibaziokoa dela eta, zerbitzuen sektorean, aldiz, % 78,5ek (merkataritzako eta ostalaritzako % 69k eta enpresentzako zerbitzuen % 84,5ek).

**Datozen hilabeteetara begira, enpresak nabarmen ezkorragoak dira.** Atzeraldia aurreikusten duten enpresen kopurua % 32ra igo da, eta % 17,5era jaitsi da berraktibazioa aurreikusten dutenen kopurua. Aurreikuspen horiek betetzen badira, +12 puntu gehiago izango lirateke lehenengo kasuan, eta -12 puntu gutxiago bigarrenean. Egoera normaltasunekoak izango dela uste dutenen kopurua, berriz, ez da apenas aldatu: % 50,5k baino ez dute uste hori. Guztira, datozen hilabeteetarako normaltasuneko edo berraktibazioko egoera bat aurreikusten duten enpresen kopurua % 68ra jaitsi da; 2021eko urtarrilaz geroztiko mailarik baxuena da (orduan % 62).

**Kontuan izan behar da enpresek apirilean aurreikusi zutena baino okerragoa dela iraileko egoera.**

## Salmentak

### Fakturazioaren igoerak indarra galdu du

Fakturazioaren igoerak indarra galdu du, azken hiru hilabeteetan enpresen batez besteko fakturazioa +% 0,8 hazi den arren aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (+% 0,5 barne-merkatuan eta +% 1,9 kanpo-merkatuan).

Hazkundea, batez ere, zerbitzuen sektoreari dagokio, +% 2,9, eta haren atzetik kokatu da eraikuntza, +% 1,1eko hazkundearekin. Industrian, berriz, ia ez da mugitu, eta oso igoera txikia izan du, +% 0,2koa.

## Eskarien zorroa

### Eskarien maila -% 4 murriztu da aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, industria-sektoreak izandako bilakaera negatiboaren ondorioz.

Eskari maila altua dutela dioten enpresen kopurua % 26,5era jaitsi da, hau da, **apirilean baino -10,5 puntu gutxiago, eta 2021az geroztiko mailarik baxuena.**

Eskari maila ahula dutela dioten enpresen kopurua % 31ra jaitsi da, hau da, apirilean baino +3,5 puntu gehiago eskuratu ditu eta iaz baino +3,5 puntu gehiago. Dena den, aurtengo urtarrilean % 31,5 izan ziren (orduan % 31k zioten eskari maila altua zutela).

Eskari maila altuaren aukerak galdu dituen puntuen bi heren maila normalaren aukerak jaso ditu. Hala, enpresen % 42,5ek adierazi dute eskarien maila normala dutela; datua apirilekoa baino +7 puntu handiagoa eta joan den urteko ia berdina da.

Bilakaerari dagokionez, eskari maila handitu zaiela adierazi duten enpresen kopurua hazi egin da eta % 19an kokatu da. Datu hori apirilekoa baino -18 puntu baxuagoa da eta, ziur asko, 2020ko maiatzaz geroztiko mailarik baxuena, baina urte horretako urtarrileko mailaren antzekoa (orduan ere ia % 19). Aurreko urtearekin alderatuta, -15,5 puntu gutxiago dira.

Enpresen % 29k adierazi dute haien eskariak behera egin dutela aurreko hiruhilekoarekin alderatuta; apirilean baino +7 puntu gehiago da hori, eta 2021eko urtarrilaz geroztiko mailarik altuena (orduan % 31). Aurreko urtearekin alderatuta, +9 puntu gehiago dira.

Enpresen % 52k adierazi dute haien eskariak mantendu egin direla aurreko hiruhilekoarekin alderatuta; apirilean baino +11 puntu gehiago da hori, eta 2020ko urtarrilaz geroztiko mailarik altuena (orduan % 55). Aurreko urtearekin alderatuta, +6,5 puntu gehiago dira.

Testuinguru horretan, enpresek adierazi dute eskarien maila batez beste -% 4,2 jaitسي dela aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. Jaitsiera industriari dagokio, -% 7,1 egin baitute behera industria metalikoak eta ez-metalikoak. Eraikuntzan, aldiz, +% 4,3 egin du gora eskarien mailak, eta zerbitzuen sektorean +% 4,1.

## Produkzio-gaitasunaren erabilera

Produkzio-gaitasunaren erabilera maila 84an kokatu da

Apirileko maila baino apur bat beherago, baina aurreko urteko erregistroa baino gorago. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, enpresen % 18,5ean jaitسي egin da PGE, eta % 17an baino ez da hazi.

## Plantillak

Enpresen % 15ek plantillak handitzea aurreikusten dute, % 17,5ek murriztea eta % 67,5ek mantentzea.

Enpresen % 15ek aurreikusten dute haien langile kopuruak gora egingo duela; datu hori **apirilekoa baino -10,5 puntu baxuagoa da eta, ziur asko, pandemiako datu okerrenez (2020ko iraila edo maiatza) geroztiko mailarik baxuena**. Aurreko urtearekin alderatuta, -6 puntu gutxiago dira.

Apirilarekin alderatuta hazkundearen aukerak galdu dituen puntu gehienak murrizketaren aukera jaso ditu; hala, % 17,5era igo da aukera hori, pandemiaren unerik okerrenez geroztiko mailarik altuenera. Apirilean baino +10 puntu gehiago dira eta iaz baino +7 puntu gehiago.

Enpresen % 67,5ek aurreikusi du langile kopurua aldaketarik gabe mantentzea; hau da, apirilean baino +0,5 puntu gehiago bakarrik, eta iaz baino -0,5 puntu gutxiago.

Eraitza horiek Gipuzkoako ekonomia orokorrera eramanez gero, **badirudi enpleguaren sorrera moteldu egin daitekeela, eta murriztu ere egin daitekeela**, batez ere, industrian eta merkataritza- eta ostalaritza-zerbitzuetan. Dena den, 2022an batez beste 5.000 soldatapeko lanpostu garbi inguru sor litezke aurreko urtearekin alderatuta.

## Kezka-faktoreak

Lehengaien eta energiaren hornidurak eta kostuak jarraitzen dute kezka nagusiak izaten, eta hauek dira hurrengoak: lan-kostu altuak eta soldata-igoerak, eta salmenten errentagarritasunaren jaitsiera. Laugarren eta bosgarren postuetara igo da nazioarteko eta Espainiako ekonomiaren gaineko kezka.

Lehengaien eta energiaren hornidurak eta/edo prezioak jarraitzen dute izaten enpresen kezka nagusiak. Zehazki, enpresen ia % 78 kezkatzen ditu horrek. Datu hori apirilekoa baino -3 puntu baxuagoa da. Dena den, datuak ditugunetik, orduan bakarrik erregistratu zen maila altuagoa.

Lehengaiak eta energia kezka-iturri dira industria-enpresen % 88,5entzat, eraikuntzako enpresen % 75entzat eta zerbitzuen sektoreko % 51rentzat.

Beste behin, bigarren postuan dago lan-kostu handiekin eta soldata-igoerekin lotutako kezka. Hain zuzen ere, enpresen % 42,5entzat dira arazoak. Kezka honek -4,5 puntu galdu ditu apirilarekin alderatuta, baina +15,5 hazi da joan den urtearekin alderatuta. Gai horren inguruko kezka agertu dute eraikuntza-sektoreko enpresen % 50ek, industria-sektorekoen % 42k eta zerbitzuen sektoreko % 41ek.

Hirugarren postuan jarraitzen du salmenten errentagarritasunaren jaitsierarekin lotutako kezka. Enpresen % 37k aipatu dute. Kasu honetan, ordea, kezka +1,5 areagotu da apirilarekin alderatuta, iazko maila baino -5,5 puntu beherago kokatu bada ere. Errentagarritasuna arazo bat da eraikuntza-sektoreko enpresen % 50entzat, industria-sektorekoen % 38rentzat eta zerbitzuen sektoreko % 31,5entzat.

Laugarren postuan dago nazioarteko ekonomiaren ahultasunaren gaineko kezka; enpresen % 33k aipatu dute. Eta, bosgarren postuan, Espainiako ekonomiaren ahultasunari buruzko kezka; enpresen % 27,5ek aipatu dute.

Industria-sektoreko enpresak gehiago kezkatzen ditu nazioarteko ekonomiak, Espainiakoak baino. Aldiz, kontrakoa gertatzen da zerbitzuen sektoreko enprekin. Ekonomiaren ahultasuna ez dago eraikuntza-sektoreko enpresen kezka nagusien artean.

Langile kualifikatuak kontratatzeke zailtasunarekin lotutako kezka seigarren postura jaitsi da; enpresen % 25,5ek aipatu dute. Apirilean baino -4,5 puntu baxuagoa da datua (gehien jaitsi den bigarrena), eta iaz baino -9,5 puntu baxuagoa. 2021eko apirilaz geroztiko kezka mailarik baxuena da (orduan % 19). Kezkarik handiena erakutsi duen sektorea eraikuntzarena izan da: % 66,5. Zerbitzuen sektorea izan da hurrengoa, % 35,5ekin (arlo hauek nabarmendu dira: osasungintza, gizarte-zerbitzuak eta hezkuntza), eta industria azken postuan kokatu da, % 17,5ekin.

Apirilarekin alderatuta gehien hazi denetako bat banku-finantzaketaren gaineko kezka izan da. +4,5 hazi da, nahiz eta enpresen % 8k baino ez duten kezka hori.

## Salmenten errentagarritasuna

Azken hiru hilabeteotan, salmenten errentagarritasuna gutxitu egin da enpresen % 52,5entzat, mantendu % 44rentzat eta % 3rentzat baino ez da hazi.

Industria-enpresen % 59k adierazi dute beherakada ( % 55 metalezkoak, % 68,5 ez-metalezkoak). % 58,5 eraikuntzan eta % 34,5 zerbitzuen sektorean (merkataritza eta ostalaritza, % 50, eta enpresentzako zerbitzuak, % 29).

Industria-enpresen artean, % 38 dira, metalikoen % 40,5, eta ez-metalikoen artean, berriz, % 31,5. Eraikuntzan % 41,5 dira, eta % 61 zerbitzuen sektorean, % 44 merkataritzan eta ostalaritzan eta % 66,5 enpresentzako zerbitzuetan.

## Hornikuntza

Hornigaien kostuak gora egiten jarraitu du enpresen % 71,5entzat; apirileko datua baino 13 puntu baxuagoa da. Batez beste, hazkundea +% 9,5 ingurukoa izan da.

Hornigaien kostua +% 10,5 hazi da industrian (% 9,5 industria metalikoan eta % 13,5 ez metalikoan). Eraikuntza-sektorean hazkundea % 6,5ekoa izan da eta, zerbitzuen sektorean, % 6koa (% 7,5ekoa merkataritzan eta ostalaritzan, eta % 6koa enpresentzako zerbitzuetan).